


BIZITEGI ERAIKINA
C MAILA**SAN MARTIN 21**

Egilea eta data: Jose de Goicoa (ustez), 1895
(Ez dago jatorrizko proiekturik Udal Artxiboan)

Deskribapena

Katedrala inguratzen duten bizitegi eraikinak Jose de Goicoak ezarritako multzo eredu jarraituz proiektatu, eta 1895 eta 1905 urteen artean eraiki zituzten, eraikuntza neogotikoa baino pixka bat beranduago. Lau bloke oso eta San Martin kalera ematen duten bi etxadi aurrealde. Etxadi bakoitza kantoiko edo fatxada bikoitzeko mehelinen arteko etxebizitzek osatua dago. Guztien kanpoaldeek tratamendu bateratua dute. Hala ere, zenbait kasutan fatxadako erritmoen eta barruko propietateen artean desfasea dago. Behe oina, lau goi oin eta estalkipeko oina dituzte. Etxebizitzaren fatxadek kalitate handia dute, arkitekturari eta eraikuntzari dagokienean. Tradizio neoklasikoko, eragin eklektikoen xehetasunak dituzte baina forma neurritsuekin. Goicoak hemen ordena orokorreko ideian batean zuen konfiantza adierazi zuen, hots, fatxada guztietan seriean eta aldaketarik gabe aplikatzeko proportzioen sistema batean. Maila zehatzago batean harlanduaren profilak eta marrazkia, balastradako errematea, plazaren iparraldeko arku multzoa, eta arotzerien tonu grisaren eta hareharriaren arteko konbinazio berezia nabarmentzen dira. Hormigoizko begiratokiak F. Urcolak proiektatu zituen 1923an, San Bartolome 2koekin batera.

Babes erregimena

- 1.- Babes erregimen orokorra:
 - Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.
 - Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharrezko arkitekturako proiektuarekin bat etortzeko arrazoietatik mantentzea justifikatzen ez bada.
- 2.- Berariazko babes erregimena:
 - A. Babesetik kanpo utzitako fatxadaren elementuak: behe oinetako fatxadetako harlanduzko estaldurak.
 - B.- Fatxadaren elementu iraunkorrak: harlanduzko elementuak; burdineria balkoietan; pertsiana tolesgarriak eta arotzerien jatorrizko formatua; begiratokiak.
 - C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: "Artzain Ona" E mailako multzo katalogatuaren barruan egotearen ondoriozkoak; ez dira jasodurak baimenduko.
 - D.- Nahitaezko lehengoratzeak:
 - * Behe oinean estaldurak ezabatzea.
 - * Hala badagokio, aurreko aurreikuspenak betetzeari lotutako gainerakoak, erregimen orokor hori arautzen dutenak barne harturik.